



Euskal erakundeek enpresa nazioartekotzeko beren apustua berritu dute *Basque Consortium*-eko Artezkaritza Kontseiluan

Basque Consortiumek koordinazio- eta lankidetzatresna gisa finkatuta itxi du bere hirugarren jardueraturtea, eta proiektu garrantzitsuekin egingo dio aurre 2017ari euskal enpresa-ehunarentzat ekintza eraginkor eta balio handiagokoa lortzeko

Gaur goizean *Basque Consortium*eko (Nazioartekotzeko Euskal Partzuergoaren izena 2016ko martxotik) Artezkaritza Kontseiluaren urteko bilera egin da, eta hor parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako sailburu Arantxa Tapiak, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-diputatu, Imanol Pradalesek eta Ainhoa Aizpuruk, Arabako ekonomia garapenerako zuzendaria, Javier Hernando eta Ganberetako lehendakari Gregorio Rojok (Arabako Ganbera), José Ángel Corresek (Bilboko Ganbera) eta Pedro Esnaolak (Gipuzkoako Ganbera).

Euskal erakundeek, bilduta, beren sostengua berritu dute enpresa nazioartekotzeko arloko koordinazio- eta lankidetzat-organo horren alde, eta 2017rako beren ekintza-lehentasan adostu dituzte.

Datorren urtea gakoa izango da batera heltzeko nazioartekotze-programen inaktuaren ebaluazioari eta *Basque Consortium*eko eragileen nazioartekotzearen sostenguen administrazio bakarrera begira dagoen ekintza-plan baten diseinuari.

Basque Consortiumen jardueraren balantzea 2016an: Kudeaketa-organo eta lankidetzat-dinamika finkatuak

2016 *Basque Consortium*en hirugarren jardueraturtea izan da. Horrek aukera eman du 2014tik lantzen ari diren proiektuei buruz gogoeta egiten, horiek erabakitzen eta bultzatzen jarraitzeko. Hamar bilera politiko-teknikotik gora egin dira, honelako jarduketak eta tresnak hedatzeko aukera eman dutenak:

- [Basque Consortium Gida](#), katalogo bateratu, eguneratu eta erraz eskuratzekoa sortzea. Erakunde parte-hartzaileek euskal enpresen esku jartzen dituzten programei eta zerbitzuei buruzko katalogoa da, haien ekimenetan eta nazioartekotzeko ekintzetan laguntzeko.
- Lehen [Mundura Begira Kongresua](#) egitea, *Basque Consortium*ek antolatutako gogoeta-ekitaldi bat, 650 pertsona baino gehiago partaide izan zituena.
- Washingtonen egindako [Smithsonian Folklife Festival](#)-ari lotutako agenda ekonomikoa antolatzea.

- Lankidetza-hitzarmen bat sinatzeko akordioa Basque Consortiumeko erakunde parte-hartzaileen artean, batera bultzatu behar diren proiektu eta tresna berrien baterako finantzaketa erraztuko duena.

Basque Consortiumen ekintza-lerroak 2017ari begira: proiektu garrantzitsuak euskal enpresa nazioartekotzeko sistematik balio handiagoa indartzeko eta sortzeko.

2016an aurreratu egin da Basque Consortiumeko eragileak sustatzeko, zalantzarik gabe, gako izango diren proiektuei forma emateko geroko ekintza garatzeko.

Artezkariak Kontseiluak aho batez egin du horien alde eta, horrela, Partzuergoaren jarduerak esparru hauek izango ditu ardatz 2017an zehar:

- Basque Consortiumeko erakunde parte-hartzaileek gauzatzen duten nazioartekotzea sustatzeko politika publikoen mixa **ebalutzeko sistema** bat.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien laguntza-**programen administrazio integratua**. Helburu bikoitzarekin: enpresek baliabide publiko eskuragarrien erabilera sinplifikatzea eta optimizatzea eta horien prozesuak lerrotzeko eta arintzen dituzten administrazioek eraginkortasuna irabaztea. 2017an diseinu-fasea gaindituta, helburua da 2018 ekitaldiko laguntza-deialdiek ekintza-plan honetan administrazio bakarrerantz aurreikusitako baldintzetan lan egitea.
- **Bigarren Mundura Begira Kongresua**, nazioartekotzeari buruz urtero egiten den gogoeta-hitzordua finkatzeko eta hazteko bokazioz egiten dena eta esparru honetan antenako, trukeko eta ikaskuntzako beste jarduera batzuen hazia dena.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren beste lehentasun batzuk 2017rako:

Enpresa Nazioartekotzeko 2017-2020 Plana prestatzea

Gainera, Arantxa Tapia sailburuak Basque Consortiumeko kideekin konpartitu ditu Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiak nazioartekotzeari lotutako esparruetan finkatu dituen lehentasun batzuk.

Horien artean nabarmentzen da Enpresa Nazioartekotzeko 2017-2019 Plana definitzea, datorren urteko lehen seihilekoan osatzea aurreikusten dena. Basque Consortium gogoeta-foro eta ekarpen garrantzitsuak izango da plan horretan, eta gobernu-ekintzaren oinarriak jarriko ditu datozen urteetan nazioartekotze-arloan.